



Distancia proyectada 15.56 km Ascension Acumulada: 1110 m Descenso acumulado 1263 m Duración 05:12:24
 Distancia proyectada 11.41 km Ascension Acumulada: 610 m Descenso acumulado 756 m Duración 03:48:08



BELABARTZE - GARBISA - ITURBURUA – TXAMANTXOIA – CAMPING ASOLAZE

Belabartzeko bailara eder eta bilduan Xandin borda ondoan ematen diogu hasiera ibilbideari. Bordaren atzealdean, hesiaren bukaeran, bidea zuhaitzian barneratzen da eta leun-leun gorantz doa. Laster errekatxo bat gurutzatzen dugu eta bere ondoan metro batzuk jarraitzen ditugu. Bidea, konifera zuhaitzi basotsu batean eta garo alfonbra artean zuzenean maldan gora doa. Maldaren goialdean bideak poliki-poliki bere nabarmentasuna galtzen doa eta pinu gazte taldetxo baten aurrean gaudenean ezkerredera joko dugu argigune bateraino. Argigunean egoera txarrean dagoen borda bat dago.

Toki honetatik Ipar norabidea jarraituz gorantz goaz Garbisako bizkarrera, gertu gure ezkerrean uzten dugu Garbisako lepoa. Behin bizkarrean, Belabartzeko bailararen eta Mazeko sakana- Obieta Oihanaren arteko banalerroan bete-betean, ekialde norabidea jarraitzen dugu **Garbisako (1546 m)** tontorreraino. Bizkarra segitzen dugu Iparekialde norabidean, Iturburu gainetako 1572 m kota gainditzen dugu eta ondoren **Iturburuako (1582 m)** tontorrera iristen gara. Bertaraino igotzen dira Obieta Oihaneko pagoak.

Pago eta tximistek egindako zauri orbainduak dituzten pinu batzuen artetik Mazeko lepora jaisten den zidorra jarraitzen dugu. Lepoan, pago eta koniferekin estalia, errekatxo bat gurutzatu eta hito eta pintura marka batzuk aurkituko ditugu, hartu behar digun bidea adierazten digutenak. Mendebal norabidean pinu artean zidorra jarraitzen dugu pista eta borda bateraino. Pista honetatik goaz bere bukaeraraino.

Bertan abiatzen den zidorra hartzen dugu zidor gurutze txiki bateraino. Eskuinera joaten gara aldapa handiko eta gune garbi baten oineraino. Zidorrik gabeko maldan gorantz goaz goialdean dauden zuhaitzerantz, Txamantxoiako bizkarreko Pakos de Tamburinerira iritsi arte. Gaineko bizkar luze honek tontorreko bi buzoia eta erpin geodesikoraino bideratuko gaitu. **Txamantxoi (1945 m)**.

Ibilbidean zehar ikusmirak eta paisaiak ederrak izan badira, zer esan Txamantxoiak eskaintzen digun panoramika ikusgarriari buruz. Iera Lapazarra; IIMdera Lakora; IMdera Lakartxela, Ori; HHMdera Ezkaurre; HHEdera Alano; EHEdera Gamueta; Edera Atxerito, Petretxema; EIEdera Lapakiza; IIEdera Arlas.

Jaitsierarako Pacos de Tamburineraino itzuli behar gara. Toki honetan kontu pixka izan behar da norabide zuzena hartzeko. Malda ireki egiten da bi bizkar osatuz. Ezkerrean osatzen den bizkarra jarraitu behar dugu eta Iparmendebal norabidean jaitsi bejetaziorik gabe gune batetik. Gutxira, bi bizkarren artean Sabuki (1370 m) borda utziko dugu. Behera jarraitzen dugu, borda baten aurrien ondotik pasatzen gara eta basora iristen gara.

Toki honetan denok elkartu eta jaitsiera elkarrekin egitea komeni da. Biderik gabeko baso trinko baten sartzen gara, non norabide egokia jarraitzea ez da erraza. Hasieran zertxobait eskuinera eginez jaisten da eta ondoren zertxobait ezkerredera, eta Maria Juana bordaren aurrietara eta gertu dagoen lepora (1050 m) bideratuko gaituen zidor estua aurkitzen saiatu. Lepoan nabarmenago den zidorra jarraitu behar da, lehenengo Hego norabidean eta ondoren Mendebalde norabidean Asolaze kanpineraino (930 m).

BELABARTZE - GARBISA - ITURBURUA – TXAMANTXOIA – CAMPING ASOLAZE

Comenzamos el recorrido junto a la borda de Xandin en el coqueto y recogido valle de Belabartze. En la parte posterior de la borda, al final de la alambrada, un sendero se interna en el arbolado y asciende suavemente. Pronto cruzamos una pequeña regata y continuamos junto a ella unos metros. El camino discurre entre un frondoso arbolado de coníferas y una alfombra de helechos y ahora asciende decididamente por la ladera. En la parte superior de la ladera el camino poco a poco va perdiendo definición y cuando nos hallamos ante un pequeño grupo de pinos jóvenes giramos a la izquierda hacia un claro. En el claro se encuentra una borda en mal estado.

Desde este lugar ascendemos en dirección Norte al cordal de Garbisa, dejando un poco a nuestra izquierda el collado de Garbisa. Una vez en el cordal, en plena divisoria del valle de Belabartze y el barranco de Maze-Selva de Obieta, seguimos en dirección Este hasta la cima de **Garbisa (1546 m)**. Continuamos por el cordal en dirección Noreste, superamos la cota 1572 del conjunto de altos de Iturburua y seguidamente alcanzamos la cima de **Iturburua (1592 m)**, hasta donde llegan las hayas de la Selva de Obieta.

Seguimos por el sendero que desciende al collado de Maze entre hayas y algunas coníferas que muestran las cicatrices de las heridas producidas por los impactos de los rayos. En el collado de Maze, cubierto por hayas y coníferas, cruzamos una pequeña regata y encontraremos unos hitos y unas marcas de pintura que nos indican el camino a seguir. Entre pinos seguimos el sendero en dirección Oeste hasta llegar a una pista y una borda. Seguimos por la pista hasta el final de la misma.

Continuamos por el sendero que parte al final de la pista hasta llegar a un pequeño cruce de senderos. Giramos a la derecha hasta situarnos al pie de una zona despejada de vegetación y con fuerte pendiente. Ascendemos sin sendero por esta ladera en dirección a unos árboles en la parte superior de la misma hasta alcanzar los Pacos de Tamburín en la loma cimera de Txamantxoia. La larga loma cimera nos conducirá hasta los buzones y el vértice geodésico de la cima. **Txamantxoia (1945 m)**.

Si a lo largo del recorrido las vistas y el paisaje han sido hermosos, que decir de la espectacular panorámica que nos ofrece Txamantxoia. N- Lapazarra; NNO- Labora; NO- Lakartxela, Ori; SSO- Ezkaurre; SSE- Alano; ESE- Gamuela; E- Atxerito, Petretxema; ENE- Lapakiza; NNE- Arlas

Para el descenso tenemos que regresar hasta los Pacos de Tamburín. En este lugar hay que tener cuidado para tomar la dirección correcta. La ladera se abre formando dos lomas. Tenemos que seguir por la loma que se va formando a la izquierda y descender por una zona sin vegetación en dirección SO. Al poco tiempo entre las dos lomas dejamos la borda de Sabuki (1370 m). Seguimos descendiendo, pasamos junto a las ruinas de una borda y llegamos al bosque.

En este lugar es conveniente que nos agrupemos todos y continuemos juntos el descenso. Nos internamos en un frondoso bosque sin senderos, donde no resulta fácil seguir la dirección adecuada. Al comienzo se desciende con una ligera tendencia a la derecha para descender posteriormente ligeramente hacia la izquierda, y tratar de encontrar un estrecho sendero que nos conducirá a un claro con las ruinas de la borda María Juana y al cercano collado (1050 m). Ahora seguimos el sendero más definido que primero desciende en dirección Sur y posteriormente continúa dirección Oeste hasta el camping Asolaze (930 m)

Se puede pasar por el camping aunque no se esté allí alojado. Hay que dirigirse hacia unas escaleras que se encuentran al fondo del camping, pasar un portillo (dejar el paso cerrado) y seguir unas marcas rojas y azules hasta un poste indicador que señala al Txamantxoia por la derecha. Las balizas rojas y azules continúan guiándonos por el bosque hasta llegar a una campa despejada. A partir de allí, se asciende por corredores herbosos (algo empinados pero sin ninguna complicación) hasta alcanzar el cordal del Txamantxoia, cerca de los Pacos de Tanburin. Siguiendo hacia el E. se llega a la cumbre pasando previamente por una antecima marcada con un cairn de piedras y un taco geodésico.